BIZITEGI ERAIKINA — GARIBAI 4

D MAILA



Egilea eta data: Jose Galo Aguirresarobe; 1866

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena. Fatxada entokatua, azpadurak nabarmenduta. Proiektuan, behe oina zentratutako atariaren inguruan bao handiekin eta zurezko estaldurarekin aurreikusi zen; gaur egun, ordea, oso aldatuta dago.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.